

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), 2019ko urtarrilaren 12tik 18rako astea.

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala 2019/01/14

- Arabako zurgintzako industriren sektorearentzako 2019ko lan-egutegia. 6 xedapena - 3 or.

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2019/01/16

- Arabako Etxez Etxeko Laguntza Zerbituzaren hitzarmen kolektiboa . 67 xedapena - 16 or.

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2019/01/18

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkararena. Honen bidez, ebazten da Transportes por Carretera, Grupos de Tracción Mecánica y Agencias de Transporte Sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren Ultraaktibitatea Luzatzeko Akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48002325011981). 1 or.

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/01/15

- **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEAREN MINISTERIOA. - Medikamentuak.** - SCB/1453/2018 Agindua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez zuzentzen diren azaroaren 23ko SCB/1244/2018 Aginduaren akatsak. Agindu horren bidez, 2018an Osasun Sistema Nazionaleko medikamentuen erreferentzia prezioen sistema eguneratu zen. 2019-396 xedapena - 2 or.

2019/01/17

- **OGASUN MINISTERIOA. - Zerga eta aduana kontrola.** - Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 11koa, Zerga Administrazioako Espainiako Agentziako Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez onesten diren 2019ko Zerga eta aduana kontrolaren urteko planaren jarraibide orokorrak. 2019-507 xedapena - 31 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/01/14

- **OSASUN SAILA.** - 194/2018 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Osasun Saileko Estatistikarako Organo Berezia sortu eta berorren antolakuntza eta jarduteko modua ezartzen dituen Dekretua aldatzekoa. 156 xedapena - 3 or.
- **SEGURTASUN SAILA. - HUTS-ZUZENKETA,** honako agindu honena: Agindua, 2018ko azaroaren 22koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita nola jakinarazi behar zaizkion Ertzaintzari urruneko kontrolaren bidez gidatutako aireontzien (RPA) eragiketak, hiri, herri edo biztanleguneetako eraikin multzoen gainetik edo aire zabalean elkartutako pertsona taldeen gainetik ibiltzen direnean. 157 xedapena - 1 or.

2019/01/18

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA.** - 3/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sortzekoa. 266 xedapena - 7 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2019/01/18

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 766/2018 Foru Agindua, abenduaren 27koa, onartzen dituen zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen likidazioko hamabosterik behingo egutegia eta helbideratutako zerga sarreraren 2019ko egutegia. 87 xedapena - 12 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2019/01/15

- **LANA ETA JUSTIZIA SAILA.** - Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Esku-Hartze Sozialeko sektoreko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48006185012006). 32 or.

2019/01/16

- **LANA ETA JUSTIZIA SAILA.** - Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 7koa Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako Ordezkariak emanda. Honen bitartez, eta Durangoko Udalak horrel eskatuta, udal horretan 2018ko irailaren 14ko Ebazpena aldatzen da, 2019 urterako Bizkaik Lurralde Historikoko Tokiko festen egitaraua eta orokorra ezartzen zuena. 1 or.

2019/01/18

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2070/2018 FORU AGINDUA, abenduaren 13koa, zeinaren bidez baimena ematen baita zorrak kreditu-edo zordunketa-txartela erabilita ordaintzeko, Ordainketa-pasabidearen bidez. **2 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2019/01/14

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 1/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 10ekoa, aldatzen duena abenduaren 26ko 553/2017 Foru Agindua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredia onartu, eta hura aurkezteko moduak eta tokiak ezartzen dituen. **155 xedapena - 8 or.**

2019/01/15

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 2/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 26ko 593/2016 Foru Agindua, «Elkarren laguntzaren esparruan finantza kontuei buruz informatzeko urteko aitortpena» izeneko 289 eredia onartzen duena. **180 xedapena - 7 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO